

Banatu dira Huhezinema sariak. Irabazleak: "Ahate pasa", "5 recuerdos" eta "Bizitzako kopa"

2010/04/30

Atzo iluntzean banatu ziren Huhezinema sariak **Aretxabaletan**, bertako **Arkupe kultura etxean**. Hona saridunak:

- Dokumental onena sail ofizialean: "Ahate pasa", Koldo Almandozena.
- Fikziozko film onena sail ofizialean: "5 recuerdos", Oriana Alcaine eta Alejandra Marquezena.
- Euskarazko film labur onena: "Bizitzako kopa", Enara Goikoetxearena.
- Ikasle antolatzaileek hautatutako film onena: "Beasain-Lazkao", Jon Artolarena.
- Publikoaren sariak ikasleek aurkeztutako lanei: "Hutsik" (fikzioa) eta "H positibo" (dokumentala).



Aurten inoiz baino film gehiago aurkeztu dira Huhezinemaran: 66. Aurkeztutakoetatik, **49 fikziozkoak** izan dira, **12 dokumental** eta **5 animaziozkoak**. Hizkuntzari dagokionez, **53 gaztelaniaz** aurkeztu dira, eta **13 euskaraz**.

Hala ere, 10 baino ez ziren aukeratu Sail Ofizialerako.

Ane Muñoz, Alberto Gorritiberea eta Itziar Ituño ikus-entzunezko profesionalak osatu zuten epaimahaia.